



Shaula Gaminde
Aixerrota BHI, 13-14

AURKIBIDEA

Joseba Sarrionandia 2

Sarrera 2

Egituraketa orokorra 2

Munduko Zazpi Herrialdeetako Ipuinak

• «Pelho Leloren harria» 3

• «Sua eta hegalak» 5

• «Lehorrera bidea» 7

• «Djeha eta bere auziak» 8

• «Hondartzako dortoka»..... 10

• «Muga eta Haize Hegoa» 11

• «Gauza Galduen Sarea» 12

Iritzia 14

Bibliografia eta webgrafia 15



JOSEBA SARRIONANDIA

1958. urtean jaio zen idazle durangotarra da. Euskal Filologia ikasi eta Bergarako UNEDen fonetikako irakaslea izana da.

1980an, ETAko kide izatea leporaturik, preso hartu zuten. Epaitu eta hogeita zortzi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten.

Urte berean hiru literatur sari irabazi zituen *Maggie*, *indazu kamamila* eta *Enperadore eroa* ipuinekin eta *Izuen gordelekuetan barrena* poesi bildumarekin. Espetxetik ihes egin zuen 1985ean eta geroztik klandestinitatean bizi da.

Sinbologia iradokorra erabiltzen du bere olerkietan.



SARRERA

Joseba Sarrionandiaren eskutik Pamiela argitaletxeak argitaratutako obra miresgarri honek munduari bira emateko eta herrialde bakoitzeko ohiturei buruz jakiteko aukera ematen digu. 116 orrialdetako liburua da, marrazkiei esker itxura politagoa ematen diona. Gainera, liburu oso monotonoa ez izateko gai desberdineko ipuinak kontatzen dizkigu, fantasiako ipuinetatik abenturazko ipuinetara.

MUNDUKO ZAZPI HERRIALDETA KO IPUINAK

PELHO LELOAREN HARRIA

Cize Larraldeak kontatzen digun ipuina Kabo Verden, Praia irlan gertatzen da. Bizitzari buruz ikasteko eginda dago eta horretarako bi pertsonaia nagusi agertzen dira: Pelho eta bere ama. Umore eta abenturazko kontakizuna da.



Pelhori beti esaten diotena egiteko egiten du. Horregatik Pelho leloa deitzen diote. Hori egiteagatik liskar askotan sartzen da eta horren ondorioz, bizitzari buruz zertxobait ikasten du.

Pelhoren ama bere umeari errekadu batzuk egiteko eskatzen dio: merkadura joatea, txerri bat, pitxer bat eta orratzak erostera. Baina beti Pelhok amaren hitzak txarto ulertzen dituenek errekaduak txarto egiten ditu.

Egun batean, ama nekaturik, harri bat itsasoan garbitzeko eskatzen dio. Pelho harrituta amak agindutakoa egiten du. Bukatutakoan itsas-gizonei ondo garbituta badagoen galdetzen die. Hauek broma bat delakoan oso txarto hartzen dute eta umea jotzen hasten dira esaldi bat ikasteko aginduz.

Kolpeen ondoren, mutilak bere etxerako bidea hartzen du eta berriz marinelek esandakoa kaletik oihukatzeagatik segalariekin arazoetan sartzen da. Hauek marinela bezala beste esaldi bat ikasteko agintzen diote.

Etxerako bidean doala, berriro beste pertsonaia mota batzuekin topatzen da eta hauek ere esaldi bat ikasteko agintzen diote. Azkenean Pelho testualki esaten diotena ez duela egin behar konturatzen da.

Ipuin hau bi ataletan banatuta dagoela esan genezake. Alde batetik, sarrera. Horretan, narratzaileak zer kontatuko den azaltzen du; eta bestetik istorioa. Hau hamaika kapitulutan banatuta dago.

Istorio honen kontaketa lineala da, gertaerak hasieratik amaieraraino kontaktzen direlako.

Ipuintxo honetan pertsonaia desberdinak aurki ditzakegu. Esaterako: marinelak, segalariak, ehiztaria, ezkongaiak, hiletan bildu ziren pertsonak eta azkenik bi protagonistak.

Pelho Leloa. Praia aldean bizi den mutil bat da. Pertsona guztiek leloa deitzen diote entzundakoa obeditzen duelako, baina inolako irizpiderik gabe.

Pelhoren ama. Bere umea asko maite duen emakumea da. Berak bere umea zozoa dela ez du pentsatzen.

Idazleak mota askotako baliabideak erabili ditu ipuin hau idazteko. Besteak beste: **narratzailea orojakilea** dugu, hirugarren pertsonan kontaktzen du istorioa eta gainera pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

Oker eginetatik ikasten dela eta Pelhok ere zerbait ikasi zuelakoan, biharamunean, ea dendara joango zen galdetu zion amak. (17)

Elkarrizketa ugari ere agertzen dira:

Handik pasatzen den edozeini galdetu –erantzun zion amak–, berak esango dizu. (19)

Gainera, **euskara landua eta naturala** erabiltzen du.

Liburu honetako lehen ipuina omen da eta ez da ondo hasi. Arrunta eta errepikakorra da. Hala ere, pasarte batzuk beste batzuk baino entretenigarriagoak dira eta gainera oso erraz irakurtzen da.

Pertsonaien aldetik, interesgarriak eta originalak dira. Hala nola, istorioa honen protagonista, Pelho. Tituluak dioenez, leloa da baina, hala ere, bihotz oso oneko mutila.

SUA ETA HEGALAK

Ekua dor sortaldean, Amazoniako ibaien artean, amaierarik ez duela dirudien oihan handia gertatzen da istorio hau. Diego Armando Carrera deitzen da suari buruzko ipuin honen narratzailea. Fantasiako ipuina da.



Xibaroko tribuko jendeak surik gabe bizi dira. Egun batean, Guakamaio izeneko neskatila batek suaren bila joatea erabakitzen du. Abenturaren ondoren, bere herria suntsitzea lortuko du baina horri esker sua ekarriko du.

Xibaroko tribuko jendeak sua gabe bizi dira. Baina badago hegazti erraldoi bat ekaitza deiturikoa suaren jabea dena.

Halako batean, guzti hau aldatu behar dela pentsatuz, Guakamaio izeneko neskatila suaren bila Oihan Handira abiatzen da.

Neska oso bustita dagoenez, Haize beltza izeneko emakume batek suaren ondoan sikatzeko bere etxera eramaten du. Guakamaioi sua lapurtzeko modu bat otutzen zaio: bere hegalak suaz piztuz bere amarengana abiatzen da.

Neskatoak nahigabe tribu osoa erretzen du eta Ekaitzak neskatilak sua lapurtu diola ikusita oso haserre jartzen da. Izugarritzko euri zaparrada baten ondorioz, Xibaroen bizilekua suntsituta geratzen da.

Azkenean konturatzen da oraindik ere kea dariola leku batzuetatik, beraz, bi makil igurtziz sua lortzen du. Horrela Xibaroek sua lortzen dute, baina bidean euren hegalak galtzen dituzte.

Istorio honen egitura bi ataletan bananduta dago: sarrera eta istorioa. Sarreran zeri buruz den ipuin azaltzen du eta istorioan ekintzak azaltzen dira. Isterioa 5 kapitulutan banatuta dago.

Istorioaren kontaketa lineala da, istorioa hasieratik amaierara arte kontatzen delako, denbora saltorik gabe.

Pertsonaiak:

Xibarotarrak. Ekuador sortaldean bizi den tribu bat da. Hegalak dituzte baina sua gabe bizi dira. Horren ondorioz, bizimodu triste eta latza dute.

Guakamaio. Istorio honetako protagonista da. Bere amarekin bizi da bere aita oso goiz hil zelako. Bere tribuaren egoera ikusita suaren bila abiatzen da.

Ipuin honetako narratzailea orojakilea da. Hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa eta gainera pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

*Guakamaio ez zekien zer egin. Sutea itzela zen.
Suarekin, suntsidura ekarri zuelako. (36)*

Elkarrizketa asko agertzen dira:

*—Ai, zoritzarrekoak gu —esaten zuten—, lehen
hain lasai bizi ginenak! (38)*

Euskara landua eta ulergarria da.

Ipuin honek irakurtzea merezi du. Oso originala da Xibaro tribuko jendeak nola lortu zuen sua. Gainera, hegalak edukitzea interesgarriagoa iruditu zait. Horrez gain, pertsonaia guztiak onak dira. Hala ere, Haize beltza ausartagoa izan beharko zen.



LEHORRERA BIDEA

Kontakizun hau Hondarribiko inguruetan eta Madrilen garatzen da. Silvia Mariñelarena narratzailea da eta bere aititeren istorioa kontatzen du. Abenturazko eta amodiozko istorioa da.

Labur esanda, Patxi Hondarribian bizi den gizon bat da eta itsasoa batere gustuko ez duenez lehorreko emazte baten bila abiatzen da itsasoarekin zerikusia ez edukitzeko. Neska askorekin topa ondoren, azkenean, Tafallan perfektua aurkitzen du eta Madrilerara bizitzera joaten dira.

Horrez gainera, Patxi Hondarribian bizi da eta hango gizonek bezala, marinel moduan lan egin behar du. Baina berak ez du gustuko. Beraz, ezkontzeko adina duenean, lehorreko neska baten bila hegoalderantz jotzen du itsasertzetik urrundu nahian.

Hainbat herrixkatan egon ondoren, azkenean Tafallan neska perfektua aurkitzen du. Baina herri hura erreka batek zeharkatzen duenez, Madrilerara joatea erabakitzen dute. Madrilen ezkondu eta seme-alabak izaten dituzte.

Istorio honen egituraketa bi ataletan bananduta dago. Alde batetik sarrera, non istorioaren jatorria kontatzen digu eta bestetik, istorioa dugu eta hau kapitulu desberdinetan banatuta dago. hain zuzen ere, 7 kapitulutan. Kontaketa lineala da.

Pertsonaia desberdinak agertzen dira kapitulu bakoitzeko. Guztiak neskak dira eta Patxik herri desberdinetan ezagutzen ditu.

Protagonistak Patxi izena du. Hondarribian bizi den gizon bat da. Ez du batere gustuko itsasoarekin zerikusia duen edozer beraz itsasertzetik urruntzea erabakitzen du.

Ipuin honetan erabili diren baliabideak mota askotakoak dira. Narratzailea orojakilea da. Hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa eta gainera pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

*Itsasoa ikusten da baserritik! –pentsatu zuen
Patxik huts egin zuela konturatzean. (45)*

Pertsonaien arteko elkarrizketa ugari ere agertzen dira:

*–Azkena, popa ustela! –oihu egiten zioten
elkarri. (49)*

Kontakizun laburra eta entretenigarria da. Oso azkar irakurtzen da eta euskararen aldetik ondo ulertzen da. Protagonista oso burugogorra da eta horrek indarra ematen dio istorioari. Hala ere, errepikakorra da denbora guztian gauza berdinak egiten dituelako.

DJEHA ETA BERE AUZIAK

Mohamed Tagiten aita da kontakizun honen narratzailea. Aljeriako Saharako oasi batean gertatzen da eta zorte handiko mutil baten istorioa kontatzen digu. Esan genezake abenturazko eta umorezko ipuin bat dela.

Labur esanda, Djeha zorte handiko mutil bat da eta beti berearekin ateratzen da. Arazo askotan sartu eta atera ondoren kadi izendatzen dute eta bere trikimailuak erabilia emaztea lortzen du.

Djeha izeneko mutila Saharako basamortuko oasi batean bizi da. Bertan oso pobreak direnez oasitik irtetea eta beti zer aurkituko duen behar handian ibiltzen da.



Egun batean, baratze batera heldu eta azenarioak lapurtzen hasten da. Baratzainak mutilari zer egiten ari den galdetzen dio eta honek asmatutako azalpen ugari emanaz berearekin ateratzen da eta baratzainak lau zaku azenario oparitzen dizkio.

Egunak joan egunak etorri, Djeha zorte handiarekin beste arazo batzuetatik libratzen da. Halako egun batean, kadi izendatzen dute eta emakume bategatik bi familien arteko arazo bat konpontzen ari delakoan, emakumearekin geratu eta arazoa konpontzen du. Azkenean, Djeha oasira bere emazte berriarekin bueltatzen da.

Kontakizun hau 5 kapitulutan banatuta dago. Horrez gain, sarrera bat ere badago. Kontaketa lineala da, hasieratik amaieraraino istorioa kontatzen duelako.

Pertsonaien artean, protagonista Djeha da. Oso azkarra eta txiroa den mutil bat da. Beti berearekin ateratzen da eta zorte handia du.

Narratzailea orojakilea dugu. Hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa eta, gainera, pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

Gizon hau umezurtzari zergatik negar egiten duen galdetzeko gauza da-pentsatzen ari zen Djeha. (58)

Pertsonaien arteko elkarrizketa ugari ere agertzen dira:

*—E, Djeha! Zenbatean erosi dituzu tripakiak?
(60)*

Kontakizun hau umorez beteta dago. Protagonista barregarria eta azkarra da eta horrek ipuina aurrera eramateko eta azkar irakurtzeko aukera ematen du. Gainera, Djeha arazo batetik eskapatzen denean beste batean sartzen da istorioa entretenigarriagoa bihurtuz.

HONDARTZAKO DORDOKA

Osamu Akutagawa istorio honen narratzailea da. Japoniakoa da eta dortokari buruzko film dokumental bat presentatzen digu.

Gogoeta luzea egiteko ipuin labur-laburra da eta honen protagonista dortoka bat dela esan genezake.



Labur-labur esanda, dokumental bat egiten ari dira dortoka bati buruz eta pertsonaia desberdinak agertzen dira. Dortokak pentsatzen du bere hankekin zeruari eutsi ahal diola.

Turista batzuek dortoka bat ikusten dute eta hiltorian dagoela pentsatzen dutenez argazki bat ateratzen diote. Geroago, hoteleko sukaldariak dortoka sukaldatu nahi du baina, bizikleta hartuta beste leku batera joaten da.

Ondoren, txakur bat agertzen da eta tontakeriak esateagatik berarekin haserretzen da. Azkenean dortokaren plano bat agertzen da hausnartzeko hitz batzuk esanez.

Kontakizun hau 6 kapitulutan banatuta dago. Horrez gain, sarrera bat ere badago. Kontaketa lineala da, hasieratik amaieraraino istorioa kontatzen duelako.

Ez dira pertsonaia asko agertzen eta gainera agertzen direnak ez dute ia ezer esaten. Hala nola, hasierako Aita eta umea, hoteleko sukaldari bat, txakurra eta dortoka.

Narratzailea orojakilea da. Hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa eta, gainera, pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

Umeak ez zuen presarik hartu aitaren atzetik aterpera iristeko. Ez zitzaion bustitzea ardura. Gustuko zuen euripean ibiltzea eta egunotan, bakazioetan, gurasoek halako askatasunak uzten zizkioten. (73)

Pertsonaien arteko elkarrizketa ugari ere agertzen dira:

—*Kamera bustiko zait!* (73)

Kontakizun hau ez da besteak bezain ulergarria. Sarreran ipintzen du hausnartzeko liburu bat dela baina ez daukazu zeri buruz hausnartzeko. Gainera pertsonaiak sinpleak eta aspergarriak dira.

MUGA ETA HEGO HAIZEA

Marie Jeanne Borthiry Angelun bizi den neska bat da. Negu osoa Larrañen bere aitañi eta amañirekin ematen zuenez bertako kontakizuna kontatuko digu. *Haize Hegoa* da honen izenburua eta fantasiako eta abenturazko ipuintxo da.



Euskal iparraldean oso garrantzitsua zen Hego Haizea baina, egun batean zipaioek zaku erraldoi batean sartu zuten. Edonola ere, bi neska mutil zakua puskatu eta Haize Hegoa askatu zuten.

Bazen behin Euskal Herriko iparraldean oso garrantzitsua zen Hego Haizea neguan. Baina zipaioek ez zuten nahi, Frantziako frontera ordaindu gabe pasatzen zuelako. Beraz, zaku erraldoi bat egin zuten Hego Haizea sartzeko. Honen ondorioz, jendea hotzez hiltzen hasi zen eta hau berriro ez gertatzeko bi neska-mutilek zakua apurtzea lortu zuten. Honela ba, Iparraldeko jende guztia pozik bizitzen hasi zen.

Kontakizun hau zortzi kapitulutan banatuta dago. Horrez gain, sarrera bat ere badago. Bertan istorio polit honen jatorria azaltzen digu.

Pertsonaia desberdinak agertzen dira, hala nola: zipaioak, alkate espainolak, Mariano Mendigatxa eta Balbina.

Narratzailea orojakilea dugu. Hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa eta gainera pertsonaien sentimenduak, pentsamenduak... dakizki:

Autoritateak hotzez ikara, nekaturik, baina kontent itzultzen ziren etxera, zopa birritan jan eta ohera sartzeko. (87)

Pertsonaien arteko elkarrizketa ugari ere agertzen dira:

—Gardeko Ama Birjinaren ermitara! —esan zuen Balbinak. (88)

Oso ondo dago ipuin hau. Alde batetik, istorioaren mamia oso landua eta ulergarria da. Bestetik, mota askotariko pertsonaiak daude: gaiztoak, onak eta badira maitemindurik dauden bi neska-mutil ere: Mariano eta Balbina. Azken bi hauen istorioa oso polita da.

GAUZA GALDUEN SAREA

Ipuin honen izenburua *Gauza galduen sarea* da. Margaret Atatakhag da abenturazko eta fantasiako kontakizun honen narratzailea.

Ipar-Poloan gertatzen den istorioa honetako protagonista Ukalik da.



Ukalikek bere panpina Nanok galdu ondoren, haren bila joaten da. Bidean hainbat pertsonaia topatzen ditu eta halako batean, Gauza Galduen Herrialdera heltzen da, itsas hondoon dagoena. Han bere panpina hartu ondoren ihes egitea lortzen du. Azkenean, bere herrira bueltatzen da, baina ez bakarrik bere panpinarekin, baita Gauza galduen sarearekin ere.

Lehenengo pasarte, Ukalikek bere panpina galdu ondoren haren bila joaten da. Bilatzen ari den bitartean, erbi batekin topatzen da eta erbiaren moduan deitzen denez, animalari segika hasten da. Ugaztuna bere bistatik desagertzean konturatzen da galdu egin dela.

Ondoren, Ametsen maisuarekin topatzen da eta honek jolasten geratzeko eskatzen dio, baina Ukalik Nanok bilatzen ari denez, ezetz esaten dio eta bere bidaia jarraitzen du.

Ordu batzuk pasatu eta gero, Bale haserretu batek itsaso hondora bota ondoren, Ukalik Gauza galduen herrialdera heltzen da. Han bere panpina galdua aurkitzen du eta arrapalada batean itsas hondotik ateratzen da.

Azkenean, etxera bueltatzen da, baina Gauza galduen sarearekin. Jada ez da inoiz bakarrik egongo arreba bat izango duelako.

Kontakizun hau 9 kapitulutan banatuta dago. Kapitulu bakoitzean bidaiari izan dituen gorabehera desberdinak kontatzen dira. Horrez gain, sarrera bat ere badago. Kontaketa lineala da, hasieratik amaieraraino istorioa kontatzen duelako.

Pertsonaia asko agertzen dira: Ukaliken gurasoak, erbia, Ametsen maisua, Bale zuria, Olagarroa, etab.

Ipuin honetan ere protagonista bat dago: Ukalik. Iparpoloan bizi den ume bat da. Bere panpina galdu ondoren oso bakarrik sentitzen denez haren bila joaten da. Mutiko abenturazalea eta ausarta da.

Istoria hau oso ondo azalduta dago. Alde batetik, pertsonaia nagusia dugu oso ausarta eta burugorria dena. Bestetik, Gauza Galduen Herrialdea dugu. Oso leku originala eta interesgarria da eta noizbait zerbait galdu badugu seguruenik bertan aurkituko dugu.

IRITZIA

Joseba Sarrionandiak obra hau egiteko erabili dituen **baliabideak** askotarikoak dira.

Alde batetik, liburua zazpi kontakizun desberdinetan banatuta dago. Horiek guztiek titulu bat dute eta obra honen tituluak dionez, munduko zazpi herrialde desberdinetatik datoz. Bakoitzak istorioa hobeto ulertzeko edo jatorria ezagutzeko sarrera bat du. Horrez gain, istorio bakoitzean kapitulu desberdinak aurki ditzakegu eta ez hori bakarrik, irakurketa hain aspergarria ez egiteko era guztietako marrazkiak daude.

Bestetik, zazpi kontakizun hauetan narratzailea orojakilea dugu. Gainera, narratzaileak dena ez kontatzeko elkarrizketak ere agertzen dira.

Munduko zazpi herrialdetako ipuinak argitalpen oso landua da, marrazki desberdinekin hornituta eta alai da. Bigarren argitalpena dugu; beraz, liburuak arrakasta eduki duela esan nahi du.

Tituluak dioten moduan, zazpi herrialdeko ipuinak biltzen ditu, bakoitzak kultura desberdinekoak:

Joseba hartu dugu biltzaile, itzultzaile eta idazkari, pasaportetik eskatu ez digulako.

Hau aurrera ateratzeko, herrialde desberdinetan bizi diren pertsonaiak elkartu eta istorioa polit hau aurkeztu digute. Gainera, kultura desberdinak ikasteko aukera eman digu.

Hala bada ere, istorio guztiek interesgarriak izanik batzuk besteak baino ulergarriagoak egiten zaizkigu eta horren ondorioz, istorioaren ildo hobeto eraman ahal dugu. Esaterako, erakargarriak edo ulergarriak dira euskara landua, pertsonaia desberdinak eta eramangarriak agertzen direlako. Esate baterako: *Sua eta hegalak*, *Lehorrera*

bidea, Djeha eta bere auziak, Muga eta Haize Hegoa eta Gauza galduen sarea.

Beste batzuk, *Pelho Leloren harria* eta *Hondartzako dortoka*-rena kasurako ez dira hain interesgarriak. Agian hau gertatzen da ulertzeko zailak direlako.

Edozelan ere, guztietan pasarte onak aurki ditzakegu. Adibidez: *Hondartzako dortoka*-ren kontakizunean azkeneko zatia originala iruditu zait:

Ez dakizu zein inportantea den bakoitzak bere gaineko zatiari eustea –esan zuen dortokak, pantailan.

BIBLIOGRAFIA

Munduko zazpi herrialdetako ipuinak, Joseba Sarrionandia, Pamiela.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joseba_Sarrionandia

<http://www.xuxen.com/>

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/munduko-zazpi-herrialdetako-2/munduko-zazpi-herrialdetako.pdf>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/munduko-zazpi-herrialdetako-2/munduko-zazpi-azala.jpg>